

Krisi ekonomikotik krisi politikora: trantsizioa, konstituzioa eta demokrazia M15 eta gero

Ekainaren 22tik 25era 17:00-21:00
BERRIOZAR



Antolatzaileak:

upna
Universidad
Pública de Navarra
Sistema
de Enseñanza Pública



Ayuntamiento de
BERRIOZAR
BERRIOZARKO
Udala

Finantzaketa:



Ayuntamiento de
BERRIOZAR
BERRIOZARKO
Udala

Udako ikastaroak 2015

“Krisi ekonomikotik krisi politikora: trantsizioa, konstituzioa eta demokrazia M15 eta gero”

(20 ordu)

Ekainaren 22tik 25era

1. IKASTAROAREN ZUZENDARIA

Jorge Urdanoz Ganuza (Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Kataluniako Universidad Obertako Giza Eskubideen Masterrekoa.)

2. ANTOLATZAILEAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoa



Berriozarko Udala



3. FINANTZAKETA

Berriozarko Udala



4. EDUKIAK

Ikastaroaren bidez Espainiako krisi politikoan sakondu nahi da hiru bektore hauen bidez: demokraziari buruzko gogoeta, gure trantsizioak diktaduratik hona bete duen zereginaren berrikusketa eta konstituzioa erreformatzeko proposamenak.

M15ean hautsi zen sistema politikoarekiko konfiantza. Egungo alderdi-sistemaren aldaketa gertagarria bada –inkestak guztiak aurreikusten dute–, ordezkari politikoaren egungo osaerari buruzko konfiantzarik eza zabaldua dagoelako da. Herritarren eta erakundeen arteko bitartekaritza egiteko proposamen berriak sortu dira, eta proposamen horiek neurri batean alderdietatik harago joan nahi dute. Horren ondorioz, 1978az geroztik inoiz ez da hain gertagarria izan konstituzioaren erreforma.

5. NORI DAGOEN ZUZENDUA

Jende guztiari.

6. IKASTAROAREN PROGRAMA

Ekainaren 2an, astelehena: TRANTSIZIOA

17:00-18:15:

“Trantsizioa: lokatz haietatik lohi hauek”

Juan Carlos Monedero, Zientzia Politikoko irakasle titularra da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Heidelbergeko unibertsitatean egin zituen graduondoko ikasketak. Idatzi dituen lanen artean nabarmentzekoak dira La transición contada a nuestros padres, El gobierno de las palabras eta Curso urgente de política para gente decente.

18:30-19:45

“Konstituziogileek ongi egin zuten, konstituziotik eratorritakoek ...oso gaizki!”

Bonifacio de la Cuadra El País egunkaria sortu zuen taldeko kidea da. Hainbat lan idatzi ditu. Esaterako, Soledad Gallego-Díazekin batera, Del consenso al desencanto eta Crónica secreta de la Constitución; beste sei kazetarirekin batera O-23ari buruzko lehen liburua: TODOS AL SUELO. La conspiración y el golpe; nobela beltz bat: Secretos de confesión; eta saiakera bat: DEMOCRACIA DE PAPEL, duela gutxi argitaratutakoa. Hainbat sari jaso ditu. Esaterako GIZA ESKUBIDEEN KAZETARITZA SARI NAZIONALA 1983 ETA UNICEF SARIA 1998 artikuluko honengatik: Ampliación del voto juvenil, 16 urterekin botoa emateko eskubidea aldarrikatzen duten testu batzuetan lehenengoa.

20:00-21:00 Mahai ingurua

Ekainaren 23an, asteartea: DEMOKRAZIA (ERAKUNDEAK)

17:00-18:15:

“Krisi ekonomikotik krisi politikora”

Ignacio Sánchez-Cuenca, Gizarte Zientzietako Ikasketa Aurreratuetako Zentroko (CEACS) Ikerketa zuzendaria Juan Marchy Institutuan eta Soziologiako irakasle titularra Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Bere azken liburua *La impotencia democrática* da (Catarata, 2014).

18:30-19:45:

“Espainiako unibertsitate ereduak”

Jorge Urdániz Ganuza Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea da NUPen eta Kataluniako Universidad Obertako Giza Eskubideen Masterrekoa. EL PAÍS, EL CORREO eta EL DIARIO.ES egunkarietan artikulua idazten ditu. 2014an *Veinte destellos de Ilustración electoral (y una página web desesperada)*, argitaratu zuen, Espainiako ordezkaritza-ereduari eta bere erreforma premiazkoari buruzko saiakera bat. www.20destellos.com

20:00-21:00

Mahai-ingurua

Ekainaren 15ean, asteazkena: DEMOKRAZIA (OINARRIAK)

17:00-18:15:

“Gehiengoa eta demokrazia”

Aurelio Arteta, Filosofiako eta Moralaren Filosofiako irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Saiakera batzuk idatzi ditu, eta horien artean aipatzekoak dira *La compasión: apología de una virtud bajo sospecha*, *Mal consentido: la complicidad del espectador indiferente* eta *Tantos tontos tópicos*.

18:30-19:45:

“Parte-hartze politikoko forma berriak”

José Luis Martí, filosofia politikoan eta zuzenbidearen filosofiako irakaslea Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean. Fellow ikertzailea izan da Princetongo Unibertsitatean eta irakasle bisitaria Richmondeko Unibertsitatean. Demokraziaren teoriari buruzko gaiak lantzen ditu, bereziki hausnarketaren bidezko demokrazia, demokrazia parte-hartzailea, eta demokrazia elektronikoa. Lan batzuk argitaratu ditu zenbait hizkuntzatan, eta horien artean dago *La república deliberativa* liburua (2006).

20:00-21:00

Mahai-ingurua

Ekainaren 25ean, osteguna: KONSTITUZIOA

17:00-18:15:

“Krisi politikoa eta konstituzioaren erreforma”

Javier Tajadura Konstituzio Zuzenbideko katedradun famatua da. EHUko irakaslea da 1996az geroztik. Eskolak eman ditu Italiako unibertsitateetan (Erroma, Bolonia eta Palermo). Estatu-Kontseiluak eta Azterlan Politiko eta Konstituzionaletarako Zentroak Konstituzioa erreformari buruz eraturako aditu taldeko kidea izan zen VIII. legegintzaldian.

18:30-19:45:

- “Prozesu konstituziogileak”

Gerardo Pisarello, Konstituzio Zuzenbideko irakaslea Universitat de Barcelonan. Observatori DESCecko lehendakariordea eta Sin Permiso aldizkariaren Idazketa Batzordeko kidea. Liburu honen egilea da: Procesos constituyentes. Caminos para la ruptura democrática (Trotta, Madril, 2014)".

20:00-21:00

Mahai-ingurua

TRANSIZIOA Ekainaren 22an, astelehena		DEMOKRAZIA (Erakundeak) Ekainaren 23an, asteartea		DEMOKRAZIA (Oinarriak) Ekainaren 24an, asteazkena		KONSTITUZIOA Ekainaren 25ean, osteguna
Bonifacio de la Cuadra: “Konstituziogileek ongi egin zuten, konstituziotik eratorritakoek ...oso gaizki!”	17.00 18.15	Ignacio Sánchez-Cuenca: Krisi ekonomikotik krisi politikora	17.00 18.15	Aurelio Arteta: Gehiengoa eta demokrazia	17.00 18.15	Javier Tajadura: Krisi politikoa eta konstituzioaren erreforma
Juan Carlos Monedero: “Trantsizioa: lokatz haietatik lohi hauek”.	18.30 19.45	Jorge Urdánóz: Espainiako ordezkari-eredua.	18.30 19.45	Jose Luis Martí: Parte-hartze politikoko forma berriak	18.30 19.45	Gerardo Pisarello: Prozesu konstituziogileak
Mahai-ingurua	20.00 21.00	Mahai-ingurua	20.00 21.00	Mahai-ingurua	20.00 21.00	Mahai-ingurua

7. MATRIKULA

Matrikula: 20 euro.

8. KREDITUAK EMATEA

Hautaketa libreko kreditu batekin edo ECTS 1ekin baliokidetzeko modukoa da. Gutxienez ere programatutako irakastorduen %90etara joatea nahitaezkoa da.

9. NON EGINGO DEN

Berriozarko Musika Eskolako entzun-aretoa.